

.eus domeinua, onartuta

Euskararen inguruko hainbat erakunderen eta pertsonen urteetako lanaren ondoren, iritsi da emaitza.

ICANN erakundeak Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen .eus domeinua onartu du .eus lehen mailako Interneteko domeinu bat baita, hau da, komunitatearen garapen lokalerako tresna global bat. Tresna garrantzitsua izango da komunitate oso bat elkarlotzeko eta euskararen herria mundu osoaren aurrean ikusgarri bilakatzeko.



Ayudas económicas para empresas

Los ayuntamientos de Andoain, Lasarte-Oria, Hernani, Usurbil, Urnieta y Astigarraga ofrecen ayudas económicas a las empresas que tomen medidas para incrementar su uso de euskera. Además, ofrecen un diagnóstico gratuito de Necesidades lingüísticas para cada empresa. Para más información, acude a tu Servicio Municipal de Euskera o envía un e-mail a karmele@emun.com.



“Oso garrantzitsua da profesional berriak eleaniztasunean heztea”

Bixente Atxa, Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria: “IDeO berrikuntza guneko MUren campus berrian ere ingeniari-tza graduak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez emango ditugu”.

Hernaniko Galarretan Orona IDeO berrikuntza gunea eraikitze lanetan ari dira. Proiektu horren atzean Orona kooperatiba dago, eta bidelagun ditu Mondragon Unibertsitatea eta IK4-Ikerlan. Campus berria irailean hasiko da martxan bi gradu berriekin: Ekoteknologiak eta Prozesu Industrialetako Ingeniaritza eta Energiaren Ingeniaritza. Gradu hauek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez emango dira eta horren inguruan jardun dugu Bixente Atxarekin, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko zuzendariarekin.

Zergatik erabaki duzue MUUn bi gradu berri hauekin abiatzea?

Energiaren sektorea estrategikoa bihurtu da eta etorkizunean lanpostuak betetzeko beharra izango da. Hurrengo 10 urteetan energia eta ekoteknologiarekin erlazioz atutako lanpostu kopurua bikoiztu egingo da.

Zein izan da orain arteko erantzuna?

Oso ona. Ikasle gehienak Buruntzaldekoak dira.

Ingeniaritzako graduak euskaraz, gaztelania eta ingelesez eskaintzen dituzue. Globalizazioa dela eta, ingelesaren garrantzia handitzen den neurrian nola egiten diozue lekua euskarari?

Gure hizkuntza eredu 3 hizkuntzak lantzen oinarritzen da (euskara, gaztelania eta ingeleza). Ikasleek ez dute inolako arazorik ikasketak jarraitzeko. Atzerrira joaten direnek ere, ez dute honengatik arazorik. Gehiago esango nuke; hainbat hizkuntza normaltasunez erabiltzea aberasgarria da oso eta MUUn argi daukagu oso garrantzitsua dela profesional berriak eleaniztasunean heztea.



Bestalde, MUK enpresarekin duen harreman estua dela eta errealitatearen ezagutza handia duzue. Nola ikusten duzu euskararen presentzia enpresetan?

Bi ikuspegi egon daitezke, botila erdi hutsik edo erdi beteta ikus dezakezu. Nik nahiago dut botila erdi bete ikustea. Azken urteetan aurrerapauso handiak egin dira enpresetan lan munduan euskara normalizatzeko. Guri dagokigunez, euskara sustatzeko eragile izan gaitzake: enpresekin harremanak euskaraz landu ditzakegu bai ikerketan bai transferentzian eta etengabeko prestakuntzan ere. Bestalde, ikasleek euren gradu amaierako proiektua enpresetan egiten dute. Hau aukera paregabea da euskara arlo industrialean sartzeko. Beraz, Buruntzaldeko enprekin batera, elkarlanean, euskara sustatzeko prest gaude.

Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza

Euskararen eta bere herriaren historia dibulgatzeko dokumental sorta berria

Euskara Jendea: gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza,

Ibaizabal-Mendebalde eta Zenbat Gara kultura elkarteek ekoiztutako dokumental-sorta da.

40-50 minutuko sei atalek osatzen duten dibulgaziozko lan honen bidez publiko zabal bati aurkeztu nahi zaio euskararen eta bere herriaren historia. Dokumentalak hainbat hizkuntzatan daude azpiztitulaturik. <http://www.euskarajendea.com>

